



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 10ean

5 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

—Nafarroako 1999ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

**G Saila:**

**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## **Nafarroako 1999ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 11n eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarreko Erregelamenduko 154 artikulua xedatutakoarekin bat, Nafarroako 1999ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzea.

Iruñean, 2000ko abenduaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Nafarroako 1999ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Helburua (2. or.).
- II. Lanaren norainokoa eta mugak (2. or.).
  - II.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokorren osaera (2. or.).
  - II.2. Lanaren norainokoa (5. or.).
  - II.3. Mugak (6. or.).
- III. Iritzia, iruzkinak, ondorioak eta gomendio orokorrak (6. or.).
  - III.1. Iritzia (6. or.).
  - III.2. Bestelako iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (9. or.).

### **I. HELBURUA**

Indarreko araudiari jarraituz eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2000ko abuztuaren 28an harturiko erabakia betez, Kontuen Ganbarak txosten hau egin du, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 1999ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren betetzeari buruzko egoera-orriak behar bezala agertzen duen aldi horretan izandako jardura.

- Foru Ogasunaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoera arrazoizkoa ote den, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz, zeinak aurreko ekitaldikoekiko uniformeak baitira.

- Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun printzipioari lotua egon ote den, arreta bereziz aztertuz kontratazioa eta barne kontrola.

- Foru Ogasunaren 1999ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

- Nafarroako Gobernuaren oroit-idazkian agertzen diren datu eta iruzkinak arrazoizkoak eta koherenteak ote diren.

- Kontuen Ganbarak Nafarroako Kontu Orokorrei buruz aurretik eginiko fiskalizazio txostenetan adierazitako gomendioen betetze-maila.

Nafarroako Gobernuak eginiko jardura edo eginkizun batzuei atxikiriko baliabide publikoen kudeaketan erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailari buruzko ondorio batekin osatuko da iritzi hori, txosteneko II. epigrafean adierazitako mugak kontuan izanik.

### **II. LANAREN NORAINOKOA ETA MUGAK**

#### **II.1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN OSAERA**

Hurrengo orrialdean txertaturiko taulan ikus daitekeen bezalaxe, Foru Komunitateko Administrazio Orokorren osaera honako hau da:

- Administrazio sektore publikoa, honako entitate hauek osatua:

- a) Nafarroako Gobernuaren Departamentuak (kopurua: 10).

b) Administrazio izaerako erakunde autonomoak (aurrerantzean, EEAA):

1. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI).

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ).

3. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI).

4. Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI).

5. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI).

6. Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa (NMEZ).

7. Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI).

8. Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NEZ).

9. Nafarroako Zerga Ogasuna (NZO).

• Enpresen sektore publikoa. Hori osatzen duten enpresak publikoak dira, eta enpresa horietan Nafarroako Gobernuak ehuneko 50 edo gehiagoko kapital-jabetzako ehunekoa dauka,

zuzenean edo zeharka. 1999an, sektore hori 29 enpresa publikok osatzen dute.

• Zuzenbide publikoko enteak; hain zuzen ere, honako hauek:

a) Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa.


b) Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbara.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Ogasun Publikoari buruzko Legeak ez du ezartzen zuzenbide publikoko ente horiek Kontu Orokorretan sartuko direnik; hala ere, metodologia-ondorioetarako eta Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzearen, guk sartu egin ditugu.

• Horrez gain, Nafarroako Gobernuaren kontuetan Parlamentuari eta Kontuen Ganbarari dagozkionak sartu dira.

Parlamentuak Kontuen Ganbarari erakunde autonomo, enpresa publiko eta zuzenbide publikoko enteei buruz egiteko eskaturiko aholku-lanari jarraituz (00/08/03ko 62. NPAO), bost kontseilu arauemaileren kontuak ere sartu ditugu.



## II.2. LANAREN NORAINOKOA

Nafarroako Gobernuak argitaraturiko Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrek lau liburukitan aurkezten dira:

a) Bi liburukitan agertzen dira enpresa publiko-etako, Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Kontuen Ganbarako kontuak eta auditoretzak.

b) Liburuki batek honako hau biltzen du:

1) Gastuak:

- Gastuen sailkapena, departamentuka.
- Gastuen sailkapena, programa eta proiektuka.
- Gastuen betetzea, aurrekontu-lerroka.
- Gastuen betetzea, kapitulu eta artikuluka.
- Erakunde autonomoetako gastuen betetzea.
- Gastuen betetzea, departamentu eta kapitulu-luka.
- Erresulten sortzea.
- Aurreko urteetako erresulta-mugimenduak.

2) Diru sarrerak

- Diru sarrerren sailkapena departamentuka
- Diru sarrerren betetzea aurrekontu-lerroka.
- Diru sarrerren betetzea kapitulu eta artikuluka.
- Erakunde autonomoetako diru sarrerren betetzea.

3) Baturak eta saldoak egiaztatzeko balantzeak.

c) Laugarren liburukiak jasotzen du ekitaldiko oroit-idazkia, zeina txosten honekin batera eranskin gisa agertzen baita. Bertan, honako hauek daude:

1) Dokumentuak:

- Gobernuaren aurrekontuaren likidazioa 1999ko ekitaldirako, sailkapen ezberdinetan: ekonomikoa, organikoa, programakakoa eta funtzionala.

- 1999ko balantzearen eta emaitzen kontuaren berri ematen da behar den birsailkapena egin ondoren, 1994an onetsiriko Sektore Publikoaren Kontabilitateko Plan Orokor berriaren eskemei eta terminologiari jarraituz. Hala ere, aurkezpen-mota berri hori ez da ez kontabilitate-aplikazioa aldatzearen ondoriozkoa ezta kontabilitatea Plan berrira egokitu izanaren ondoriozkoa ere.

- Foru Ogasunaren finantza-egoera.

- Egoera-balantzeari eta emaitza-kontuari buruzko iruzkinak.

- Abalei buruzko informazioa.

- Sozietate publikoen kontuei buruzko laburpen bat.

- Etorkizuneko ekitaldien kontura harturiko konpromisoen egoera.

2) Oroit-idazkia:

Hertsiki oroit-idazkia denak honako hauek hartzen ditu:

- Aurrekontuen betetzeak dituen alderdirik aipagarrienak.

- Betetzearen azterketa, kapitulu ekonomikoka.

- Aurrekontu-betetzearen azterketa, sailkapen funtzionalaren ikuspegitik.

- Azterketa, departamentuka (programakako azterketa barnean hartzen du).

- Gastuen eta diru sarrerren bilakaera 96-99 tartean.

- 1999ko ekitaldiko aurrekontu-aldaketak.

- Apendize gisa, erakunde autonomoen balantzeak eta emaitza-kontuak.

Oroit-idazki horretako sarrerak hartzen ditu Foru Administrazioaren antolaketa, Kontuen aurkezpenaren oinarriak eta horiek aurreko ekitaldiarekin alderatzearen ondoriozko iruzkin bat.

Gure lanaren norainokoak aurreko lerrokadetan deskribaturiko Nafarroako Kontu Orokorren analisia eta zentsura hartzen ditu barnean, eta Gobernuak Kontu Orokorrei buruz eginiko oroit-idazkia eta apendizeak ere aztertzen dira: eginiko iruzkinak berrikusten dira, eta aipatzen diren datuek alderdirik garrantzitsuenetan daukaten barne koherentzia ere bai.

Halaber, eranskin batean taula batzuk sartu ditugu; horietan, honako hauek laburturik azaltzen dira: 1999ko kontratazioa, 96-99 tartean egin diren Herrilan Departamentuko obrak, zerga-aitorpen metatuak eta bost kontseilu arauemaitetako kontuak.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatu-ko Kanpoko Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoretzako printzipio eta arauak" aplikatu dira, eta Kontuhartze Orokorren Zerbitzuko barne auditoretzako atalak eginiko txostenak erabili ditugu.

Kontabilitateko egoera-orriak aztertzean, behar ziren laginak hartu dira, eta Nafarroako Kontuen Ganbara honek eginiko beste lan hauetako informazioa ere erabili dugu:

- Hidrokarburoen, tabakogaien eta aseguru primen gaineko zerga berezien fiskalizazioa (64. NPAO, 00/08/17koa).

- Nafarroako Gobernuaren komunikazio-gastuen fiskalizazioa (76. NPAO, 00/09/29koa).

- Ezgaituei buruzko 1995-1999 eperako programaren fiskalizazioa (argitaratzeke).

- Canal 4 de Navarra, S.L. izenekoan programa didaktikoak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko gastuen eraginkortasun eta efizientzia (argitaratzeke).

- Nafarroako Gobernuak enpresa publikoen, erakunde autonomoen eta zuzenbide publikoko enteen formularen bitartez zenbait zerbitzu emateari buruz aholku emateko txostena (62. NPAO, 00/08/03koa).

- “Dirubilletaren kudeaketa” programari buruzko txostena ere erabili da; izan ere, 1998ri buruzkoa bada ere, kudeaketa prozedura eta sistemen analisisa egiten du (22. NPAO, 00/03/09koa).

Lan horiek txostenetan jaso dira, eta bereizita argitaratu dira.

Antolaketa eta barne kontrola hobetzeko komenigarritzat jotzen diren iruzkin eta gomendioez hornituta dago txostena.

Halaber, eranskin batean bildu dira gure ustez Nafarroako Kontu Orokorrak hobeto ulertzen laguntzen duten hainbat informazio, zeinak, askotariko arrazoiak direla-eta, ez baitira Nafarroako Gobernuak eginiko oroit-idazkian jaso.

Azaldu dugun lanari dagozkion iritzia, iruzkinak, ondorioak eta gomendio orokorrak txosten honetako III. epigrafean sartu dira.

### II.3. MUGAK

Lan honek mugak dauzka, baliabide publikoen kudeaketan erdietsitako ekonomia, eraginkortasun eta efizientzia mailaren egiaztapen-lana azterturiko programa zehatz bakoitzaren garapenerriaren, bere kudeaketa-mailaren, eskuragarri dagoen informazioaren eta proposaturiko adierazlearen kalitatearen menpekoea baita. Beraz, hainbat programaren kudeaketa publikoaren eraginkortasun eta efizientziari buruz, ezin izan dugu ondoriorik atera.

Azterketa-lana 1999ko apiriletik urrira bitartean egin du bost auditoretza-teknikarik, praktikaldiko

laguntzaile batek eta auditore batek osaturiko lantalde batek, eta Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen etengabeko laguntza izan dute.

Nafarroako Gobernuko langileei eta, bereziki, Ekonomi eta Ogasun Departamentukoei, eskerrak eman nahi dizkiegu gure lana egiteko eman duguten laguntzarengatik.

## III. IRITZIA. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

### III.1. IRITZIA

Eginiko lanaren norainokoa kontuan izanik, egoera-balantzea, emaitza ekonomiko-ondarezkoren kontua, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren likidazioa eta 1999ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren oroit-idazkia aztertu ditugu. Horiek txosten honekin batera eranskin gisa doaz, eta Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna da horiek prestatzea eta horien edukia.

Gure lanean eskuarki onaturiko auditoretzarau eta -prozedurak aplikatu ditugu, baldintzak eta lortu beharreko helburuak kontuan izanik.

Sarrera gisa esan nahi genuke honako oinarriko alderdiotan Nafarroako Gobernuaren barne kontrolako sistemak ahuldu egin direla nabaritu dugula:

- Kontu-hartzea. 1999ko 132 eta 133 foru dekretuek kontu-hartzaitzak egin beharreko kontrolaren sistema arautzen dute. Dekretu horiei aldaketak egin zizkieten urte bereko 172 eta 186 dekretuek. Azken horrek araubide iragankor bat ezarri zuen; horren indarraldia luzatu egin zen ondoren, eta gaur egun ere indarra du. Horren ondorioz, aurretiazko kontu-hartze mugatua orokortu egin da, eta A eta B mailako kontu-hartzaileen eginkizunak garatu gabe daude, orain arte ez baita bete A mailako ezein posturik.

- Kontratazio Batzordearen jarduerarik eza: ez du bilerarik egin azken hiru urteotan; dena den, 2000n bi aldiz egin du bilera.

- Hainbat kontrol-prozedura, hala nola aldiroko kontabilitate egiaztapen eta gurutzatzeak, sistematikoki aplikatu gabe uztea.

Alderdi horiek guztiek eragin negatiboa izan dezakete Nafarroako Gobernuaren jarduketetan.

Gure jardueraren ondoriozkoa da jarraian agertzen dugun iritzia.

### III.1.1. 1999ko abenduaren 31ko egoera-balantzeari dagokionez

Nafarroako Gobernuaren egoera-balantzeko saldoak agertzen dituzte Foru Ogasunak 1999ko abenduaren 31n duen ondare-egoeraren alderdik aipagarrienak, honako salbuespen hauekin:

- Ibilgetua.

Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun higigarrien inentarioa osatu gabe egoetaren eta ondasun higieziari buruz egina dagoen inentarioa horien kontabilitate-balioekin bat ez etortzearen ondorioz, ezinezkoa zaigu saldo horien onargarritasunari buruzko iritzia ematea.

- Zordunak.

Tributu-zordunen saldoen berrikuspen sistematikorik ez denez egin, eta ez direnez erkatu tributu-fitxategi indibidualekin, eta aurrekontuari hainbat tributu-aitorpen egotzi ahal izateko eragiketa-ebakidura egin den moduan egin denez, ezinezkoa zaigu saldo horien onargarritasunari buruzko iritzia ematea.

- Gorabeherak.

Ez dira kontuan hartu Nafarroako Gobernuak langile funtzionarioen pentsio-sistema indardunak sorrarazitako betebeharrak aktuarialetatik eratorritako gorabeherak.

### III.1.2. 1999ko aurrekontuaren betetzeari dagokionez

1999ko Aurrekontuaren likidazioan jasotako gastu eta diru sarrerek behar bezala agertzen dute Nafarroako Gobernuak aldi horretan eginiko jarduera, salbuespena izanik aurreko epigrafean aipatu den tributu-zordunen egoerak aurrekontu-betetzean izan litzakeen efektuak, zenbatetsi ezinezkoa baita.

Gobernuak, aurreko ekitaldietakoekin koherenteak diren irizpideak aplikatuz, zorraren esparruan 10.815 milioi pezeta jaulki direla eta 14.000 milioi kitatu direla islatu du, eta 3,185 milioiko alde garbia gastu-aurrekontuan erregistratu du.

### III.1.3. Legezketasun printzipioaren betetzea

Azterturiko laginetik ondorioztatzen da ezen, oro har, Nafarroako Gobernuaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

Hala eta guztiz ere, adierazi beharrekoa da kontrol-erregelamendu berriak aurretiazko zenbait tramite sinplifikatu egiten dituela eta lagin-hartze bidezko geroagoko kontrola egiten duela. Txosten

hau egiteko garaian geroagoko kontrol-prozesu horiek amaitu gabe zeuden departamentu guztietan.

### III.1.4. Foru Ogasunaren finantza-egoera

Oroit-idazkian jasota dago Foru Ogasunaren finantza-egoeraren analisisa, zeina honela laburbil baitezakegu:

- Aurrezki gordina (diru sarrera eta gastu arrunten arteko aldea) 65.824 milioi pezetakoa da; nahikoa, beraz, 60.510 milioi pezetako kapital defizitari (zeina kapitalaren diru sarreraren eta gastuen arteko aldea baita) aurre egiteko.

- Ogasuneko Estatu Idazkaritzak eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak izenpeturiko Aurrekontuen Kontsolidazio Esparrua bete egin da. Esparru horretan aurreikusten zen 1999an zorpetzearen gehikuntza 3.960 milioikoa izanen zela, eta ekitaldiaren amaieran zor bizia 137.228 milioikoa izanen zela; errealitatean, zorpetzeak 3.185 milioiko beherakada izan du, eta zorra 110.650 milioikoa da.

Ondorioz, Foru Ogasunak bete egin ditu, 1999an, Aurrekontuen Esparruan ezarritako betebeharrak.

### III.1.5. 1999ko ekitaldiko oroit-idazkia

1999ko ekitaldiko oroit-idazkia eranskin gisa gehitu zaio txostenari, eta behar bezala islatzen ditu Gobernuaren finantza- eta ondare-egoera, aurrekontu-betetzea –saikapen bakoitzean– eta enpresen sektore publikoko eta erakunde autonomoi buruzko datu muntadunak.

### III.1.6. Aurreko txostenetan Kontuen Ganbarak emandako gomendioen betetzea.

Ekitaldi bateko Kontu Orokorrei buruzko Txosten bat argitaratzen denetik hurrengo ekitaldiko Kontu Orokorrek ixten diren arte denbora-tarte laburra igarotzen da; hori dela-eta, ezinezkoa da oinarri sendoetan finkaturiko iritzia ematea aurreneko txostenean eginiko gomendioen betetze-mailari buruz.

Nafarroako Gobernua han-hemenka ari da kontabilitateari buruzko gomendioak betetzen. Alabaina, beste batzuei ez die ekin; adibidez, zordunei eta ibilgetuari buruzkoei. Barne kontrolari buruzko hainbat puntu ere indartu behar ditu.

Dena den, kontuan izan behar da 2000n Gobernuak jadanik onetsi dituela eta Parlamentuak eztabaidatzeko tramitean daudela Tributuei buruzko Lege Orokorren eta Pentsioen Legearen proiektuak.

### III.1.7. Eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia

II. epigrafean azaldutako mugak eragotzi egiten ditugu 1999ko ekitaldiko aurrekontu-betetzearan oro har erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiari buruzko balioespen orokorra egitea. Dena den, afera hori zaila da ebaluatzen, foru Gobernuak egiten dituen jarduerak askotarikoak eta konplexutasun ezberdinekoak direla gogoan izaten badugu.

Aurrekontuetako oroit-idazkian, departamentuz departamentuko aurrekontu-betetzearan analisian, aurrekontu-programa batzuen betetzeari buruzko iruzkin batzuk ere biltzen dira.

Programa horiek ez dute tratamendu bera: oro har, aurrekontu-betetzeari buruzko datuen berri ematen da; beste batzuetan, eginiko jarduerari buruzko datuak ere eranstean dira; eta, batzuetan, helburu kuantitatibo eta kualitatiboen betetzea balioesten da.

Iruzkin hauetatik ondorioztatzen denez, aurrekontu-programetan lorturiko emaitzak aurkezteko eredu orokorrik ez dago.

Horrela, 1999ko aurrekontua, zehazki, 91 programatan egituratu zen; oro har, programa horiek honako atal hauek agertzen dituzte: unitate arduraduna; zein den zuzendu edo aldatu nahi den egoera; programako helburuak eta ekintzak; baliabide berekiak; adierazleak; langileak; aplikatzeak diren arauak; eta aurrekontuaren laburpena, kapitulu ekonomikoka.

Kontuetako oroit-idazkian programa guztietako aurrekontu-betetzea sartzan da, nahiz eta horiek buruzko azterketa edo iruzkinak 43 programatan baizik ez diren egiten.

Oro har, eginikoa deskribatzen da, baina 18 programatan besterik ez dira aipatzen helburuak, eta horiek zortzi kasutan bakarrik alderatzen dira eginikoarekin. Zortzi kasu horietatik, gehienak Osasun Departamentuko programak dira; ospitale-sarekoei dagokionez, adierazle-multzo baterako adierazi egiten da zer den eginikoa eta zeintzuk ziren aurreikusitako helburuak.

Puntu horri dagokionez, gogoratu beharra dago Osasunbidean azken urteotan ospitaleen eta erakunde autonomoaren arteko kudeaketa-kontratua ezarri dela.

Jarraian, hainbat gomendio agertzen dira, eginiko lanaren ondoriozkoak, eta horien artean sarturik daude beste ekitaldi batzuetan eginak izanik oraindik bete gabe daudenak:

- *Ibilgetuko kontabilitate-saldoak berrius eta bahetu bitez, eta behar diren prozedura administratibo eta kontabilitatekoak ezar bitez bermatzeko saldo horiek Nafarroako Gobernuak jabetzan duen izaera horretako ondasun-multzoa uneoro behar bezala islatzen dutela.*

- *Zehazki, ibilgetuko kontabilitate-saldoak ondasun higiezin inbentariotik eratorritakoekin bat etortzeko sistema bat ezarri beharra dago, eta ondasun higigarriak ibilgetuan behar bezala balioetsiak izan daitezen egin beharreko jarduketak definitu behar dira.*

- *Sistematikoki berrius bitez, abenduaren 31ko datarekin, zordunen kontuetako saldoak; bereziki, saldo hartzekodunak dauzkaten kontuetakoak. Halako moldez non, ekitaldiaren amaieran besterik ez bada ere, sistematikoki egiazta dadin kontabilitate-datuak tributu-fitxategietan dauden saldo indibidualekin bat datozela, eta eginiko berriuspenaren konstantzia utziz. Aldi berean, tributuetako saldoak egiazko saldoak direla eta ekitaldiari dagozkion tributu-aitorpen edo -likidazio guztiak erregistratu direla egiaztatuta behar da. Egiaztapen horretarako, esparru honetan diharduten unitate guztien koordinazioa beharrezkoa da; hau da: dirubilletarena (CAT), tributu-kudeaketa-arena, ogasun-kudeaketa-arena eta kontabilitatearena.*

- *Egungo pentsio-eredutik eratorritako betebeharrak aktuarialak zenbatets bitez eta finantza-egorerrako orrietan erregistra bitez.*

- *Erregelamendu berriaren ondoriozko kontuhartzaitzako eredu praktikan aplikatu bedi, egungo egoera iragankorra gaindituz behar bezalako barne-kontrola bermatzeko.*

- *Puntu horri dagokionez, azpimarratzekoa da egin beharreko ondorengo kontrolek burututa egon behar dutela kontu orokorrak bukatzerako, iritsitako ondorioak barnean sartu ahal izateko.*

- *Berriro ere errepikatzen dugu beharrezkoa dela Kontratazio Batzordeak kontratazio publikoaren kontrol eta aholkularitzari dagokionez araudiak esleitzen dizkion eginkizunak betetzea.*

- *Herritarrari eskuratu beharreko informazioa hobetzen duten datuekin osa bedi ekitaldiko oroit-idazkia. Adibidez: beste ente publiko batzuetako kontabilitate-egoerako orriak, zerga-aitorpen metatuak, gorabeherak, kontratazio publikoari buruzko informazioa eta gastu fiskalei buruzko aurreikuspenen jarraipena.*

- *Departamentuek euren kudeaketan lorturiko eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren azter-*



*keta gehitu behar diote oroit-idazkiari. Horretara -ko, honakoak behar dira:*

*a) Adierazleen hautaketa egokia eta euren betetze-mailaren azterketa.*

*b) Programei buruzko balioespen orokorra, eraginkortasunaren, efizientziaren, ekonomiaren eta departamentuaren kudeaketaren ikuspegiatik eginikoa.*

*c) Informazio hori herritarrari modu homogeneoan eskaintzea ahalbidetzen duen eredu bat taxuztea.*

### III.2. BESTELAKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

#### III.2.1. Kontabilitate Sistema

Gaur egun, kontabilitate-sistema berria taxutu eta ezartzen dihardute oraindik. Adierazi diguteenez, 2001eko kontabilitateari sistema berriaren bidez ekin ahal izatea espero da.

“2000ko efektuari” dagokionez, ez da azpimarratzeko moduko gertakaririk izan; horrela, ba, aurreko ekitaldian hartutako neurriak positiboak izan dira.

*Gure gomendioa da kontabilitate-sistema berriaren ezarpena ahal den neurrian azkartzea; sistema horrek azkarrago, sinpleago eta eraginkorrago behar du izan, kudeaketa-zentroetako kudeaketa-lana errazteko.*

#### III.2.2. 1999ko aurrekontuaren betetzearen alderdirik aipagarrienak

Hasierako aurrekontua 340 mila milioikoa da, eta hitzartua, 367 mila milioikoa. Gastuetan, betetze-maila ehuneko 95ekoa izan da, eta, diru-sarreretan, ehuneko 96koa.

1999ko ekitaldian mantendu egin da beteriko gastuaren ehunekoa, eta diru-sarreraren ehunekoak bi puntuko beherakada izan du. Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea ehuneko 105ekoa izan da, eta zeharkakoena ehuneko 101ekoa; bi horiek ekitaldiko diru-sarreraren ehuneko 90 egiten dute.

Ekitaldiko aurrekontu-emaizta 5.590 milioikoa da, eta, pasiboen aldaketa garbia kontuan hartzen badugu, aurrekontu-saldo positiboa lortzen da, 2.405 milioikoa. Gainera, gogoan izan behar da aurrekontuan aurreikusten zela zorrak 3.960 milioiko gehikuntza izanen zuela.

Baldin ekitaldiko aurrekontu-saldoari kentzen bazaizkio eskubide eta betebeharren aldaketa eta zordunetarako hornidura, errealitatean 10.619 milioi pezetako defizita suertatzen da.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Nafarroako Gobernuaren gastu-politika eta programa guztiak sistematikoki berrikus bitez, zeren eta egungo emaitzak, funtsean, diru sarren hazkuntza handiagoarengatik lortzen ari baitira.*

- *Gaur egungo plan ekonomikoa, zeina aurrekontu-esparrukoa baita, gastu edo inbertsioko beste proiektu edo konpromiso handi batzuekin zabaldu bedi, horiek aurreikuspenetan sartuz eta lehentasunekoztat joz eta Nafarroako Gobernuak gehienez lor dezakeen zorraren zenbatekoa eta horren amortizazio-plana kontuan izanik.*

#### III.2.3. Kontratazioa

Kontratuei buruzko Foru Legeak 1998ko abuztuaren 1ean indarra hartu ondoren, lege horretako oinarriko puntu batzuk garatzeko legeak berak ezarritako zenbait epe ez dira bete; adibidez, Toki Administrazioari buruzko Foru Legea Kontratuei buruzko Foru Lege berriari egokitzu toki entitateetako kontratazioaren araupetzea egiteari dagokionez, edo Administrazio Kontratazioko Batzordearen osakeraren, antolaketaren eta eginkizunen araupetzea egiteari dagokionez.

Bestalde, legeko lehen xedapen gehigarrian hainbat esparrutarako (bermeak eratzea, kontratistak sailkatzea, baldintza-orriak onestea, lizitazio-iragarkiak eta abar) aurreikusitako zenbait erregelamendu ez dira oraindik onetsi.

Ondare Zerbitzuak Kontuen Ganbarari igorritako datuetatik ondorioztatzen denez, Nafarroako Gobernuak 1999an 1.085 kontratu sinatu zituen, eta horien guztizko zenbatekoa 38.424 milioi pezetakoa izan zen (euren xehekapena I. eranskinean ikus daiteke).

Gainera, Kontuen Ganbarak lan bat egin du Herrilan Departamentuan obra-kontratuek izan duten bilakaera egiaztatzeke. Kontratuaren esleipen eta likidazioari buruzko Herrilaren Urteko Txostenetatik abiatuz, zentzu hertsiko obrei zegozkien kontratuak aztertu ditu, eta seinalizazioa, margotzea, birlandatzea eta abarri dagozkionak baztertu dira, eta oroit-idazkian datu guztiak jasoak dituztenak ere bai. Horregatik, 120 kontratuko zerrenda bat aztertu da; horren lizitazioaren zenbatekoa 22.497 milioi pezetakoa da, esleipenekoa 17.251 milioikoa, eta likidaziokoa, 18.668 milioi pezetakoa.

Datu horiek aztertuz, honako ondorio hauek lortzen dira:

- Urtero, esleipenean beherapenak izan dira, 1997ko ehuneko 27aren eta 1999ko ehuneko 14aren artekoak.

- Tarteetan bilduz, obren ehuneko 14k % 30etik 40ra arteko beherapenak dauzkate; obren ehuneko 23k, % 20tik 30era artekoak; ehuneko 23k, %10etik 20ra artekoak, eta ehuneko 40k, % 10 baino gutxiagoko beherapenak.

- Likidazioak esleipenak baino gehiagokoak dira kasuen % 67an, eta negatiboak dira % 25ean.

Batez besteko desbiderapenak ehuneko 2tik 12ra bitartekoak dira, eta bat datoz, hurrenez hurren, esleipenetako beherapenak baxuenak eta altuenak izan direneko urteekin.

- Lizitazioaren eta likidazioaren arteko desbiderapenak negatiboak dira kasuen % 82an. Urte urte aztertutik, guztiak negatiboak dira, eta urteko beherapen horiek ehuneko 7tik 21era bitartekoak dira.

Gure gomendioak:

- *Kontrataziorako oinarrizko puntuei buruz one - tsi gabe dagoen araudia egin bedi.*

- *Sar bedi, Nafarroako Gobernuaren oroit-idaz - kian, eginiko obren xehekapen bat, ekitaldi bat baino gehiago ukitzen dituztenak zeintzuk diren, horien finantzaketa nolakoa den eta zein azkarta - sunez egiten ari diren adieraziz.*

- *Administrazio-unitateek egin litzaketen oroit - idazki edo azterlanak homogeneoak eta konpara - tu ahal izateko modukoak izan daitezten irizpide komunak ezar bitez.*

### III.2.4. Hitzarmen Ekonomikoa

1999an Estatuko karga orokorretara eginiko ekarpena 59.217 milioikoa izan da; hau da, aurreko urtean baino 216 milioi gehiagokoa.

Zenbateko hori, funtsean, urteko hasierako ekarpenari dagokio, aurreko urteetatik zintzilik zeuden doiketa batzuekin zuzendu ondoren.

Gaurkotzeke dago bosturteko berriaren oinarri - ekarpena: 2000.ekoari dagokio.

### III.2.5. Abalak eta arriskuak

Eraturiko abalak, 6.123 milioikoak izatetik, 1999an 5.391 milioikoak izatera pasa dira. Aldaketa horren zergatia dira krisialdian dauden enpresei dagozkienek izan duten 1.481 milioiko beherakada eta "I+G"ari dagozkienek izan duten 748 milioiko gorakada. Krisialdian dauden enpresei eginiko abalen zenbatekoa jaitsi da, nagusiki,

ordainketak ez egitearen ondorioz abal horiek exekutatu egin direlako.

### III.2.6. Erakunde autonomoak

Nafarroako Gobernuak administrazio-izaerako zortzi erakunde autonomo dauzka, eta haien aurrekontu-likidazioa Gobernuarenean sarturik dago.

1999an, exekutatu dituzten gastuen guztizkoa 99.480 milioi pezetakoa da; diru sarrerek, ordea, 3.890 milioi pezeta egin dituzte. Gastuen ehuneko 76 eta diru-sarreraren ehuneko 40 Osasunbidea-NOZari dagozkie. Aurreko urtearekin alderatuz, gastuek eta diru-sarrerek igoera izan dute, ehuneko 14 eta 52koa, hurrenez hurren.

Bestalde, 1999ko ekitaldiaren amaieran Nafarroako Zerga Ogasuna eratu zen, zeinak, praktikan, Ogasuneko Diputazio Nagusiaren eginkizun guztiak hartu baititu. 1999an, ez du bereizitako konturik.

### III.2.7. Enpresen sektorea

Nafarroako Gobernuak 29 enpresaren kapitalean dauka parte-hartze maioritarioa (zeina ehuneko 50ekoa edo gehiagoko parte-hartzea baita).

Haien auditoretzetan hauxe ikusten da:

- Hamaseitan iritzia aldekoa da.

- Zortzik aldeko iritzia daukate, salbuespenekin (Cetenasa, Riegos de Navarra, Nasuinsa, Magnesitas Navarras, Audenasa, Potasas de Navarra, Nafinco eta Tracasa).

- Honako kasuotan ez da iritzirik adierazi: Potasas de Subiza, likidazioan egoteagatik, eta Saldosa, hasierako izakinen saldoak ezin izan direlako egiaztatu.

- Ez da Soles Systems-i buruzko auditoretzarik egin, desegite-fasean dagoelako, eta zintzilik daude Sodexna-koa eta Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditoriokoa.

Enpresa horien diru-sarrerak 30.229 milioi pezetakoa dira, eta 4.161 milioikoak dira irabaziak. Galerak dituztenen artean, aipagarri dira Nafinco (-1.337) eta Posusa (-154). Irabazirik handienak lortu dituztenak hauek dira: Sodena (2.044), Audenasa (2.599), Vinsa (433) eta Magnesitas (363).

Langile-kopurua 1.163koa da, eta langilerik gehien duen enpresa Tracasa da, 218 langile baititu.

Aurreko urtearekiko, 926 milioiko galerak izate - tik 4.161eko irabaziak (Sodena-k eta Audenasa-k

izan dituztenen ondoriozkoak) izaterako aldaketa gertatu da.

*Gure gomendioa da enpresa publikoei eskaera egitea euren kontu eta auditoretzak formulatzean ahalik azkarrenak izan daitezen, horrela horiek oroit-idazkian jaso ahal izateko.*

### III.2.8. Zuzenbide publikoko entekak

2000n, Kontuen Ganbarak txosten bat egin du, erakunde autonomoei, enpresa publikoei eta zuzenbide publikoko enteei buruzkoa, 2000ko abuztuaren 3ko 62. NPAOn argitaratua.

Eranskinean, honako ente hauen kontuen berri ematen da:

- Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa.
- Merkataritza Ganbara.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- “Erronkariko Gazta” Kontseilu Arauemailea.
- “Lodosako Pikillo Piperra” Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arauemailea.
- “Nafarroako Aratxea” Kalitate Deituraren Kontseilu Arauemailea.
- “Nafarroako ardoa” Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arauemailea.
- “Nafarroako Patxarana” Berariazko Deituraren Kontseilu Arauemailea.

Aurrean aipaturiko txostenean adierazitako ondorio eta gomendioek indarrean dira, baina errepikatzen dugu beharrezkoa dela *“Ogasunari buruzko Legea osatzea, halako moldez non euren informazioa Nafarroako Kontu Orokorretan sartu behar duten ente-mota guztiak jasoko dituen, eta horien finantza-araubideari buruzko puntu guztiak arautuko dituen”*.

*Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarri behar du, bere kontabilitate-egoerako orriek egoera-balantzea ere ager dezaten.*

Gure iritziz, komenigarria litzateke epe luzeko plan estrategiko bat prestatzea, eta bertan zehaztea zein diren erdietsi beharreko helburuak, aurreikustea foru jarduera publikoa egiterakoan zer-nolako baldintzarekin egin daitekeen topo, adieraztea zein diren lortu beharreko lehentasunak eta xedatzea Nafarroako Gobernuak zein bitartekoren bidez helaraziko dizkien herritarrei modurik eraginkor eta ekonomikoenean gizarteak

lehentasunezko zat jotzen dituen ondasun eta zerbitzuak.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 5ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

### Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko txosten osagarria, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganbarak “Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A.” eta “SODEXNA, S.A.” enpresa publikoei buruz egindako txostena ikusita –txosten hau 1999ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari buruz Kontuen Ganbarak berak egindako txostenaren osagarria da–, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko abenduaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko txosten osagarria, Kontuen Ganbarak egina

2000ko abenduaren 11n eginiko bileran, Parlamentuko Mahaiak “Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A.” eta “SODEXNA, S.A.” enpresa publikoen kontuak, 1999ko ekitaldikoak, igortzea erabaki zuen, horiei buruzko txostena eman dadin. Kontu horiek ez ziren sartu Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektuko enpresa publikoen kontuen artean –zeinak Nafarroako Gobernuak bidali baitzituen–.

Jasotako informazioa ikusirik, Kontuen Ganbara honek adierazi behar du ezen “Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A.” sozietateak aurkezturiko kontuak kanpo-auditore batek ikuskatuak direla –horren oniritzia daukate–, eta “SODEXNA, S.A.” enpresak auditore batek ikuskatu gabeko kontuak aurkeztu dituela –azken enpresa horren kasuan, ohartarazten da sozietate hori ez dagoela Auditoretza egin diezaioten behartua, horretarako baldintzak betetzen ez dituelako–.

Enpresa horiek 1999an izan duten jarduera honela azal daiteke:

	(milioitan)	
	Diru-sarrerak	Gastuak
Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A.	10,4	10,4
SODEXNA, S.A.	16,1	16,3

Ekitaldia itxi ondorengo gertakariei dagokienez, "Palacio de Congresos y Auditorio de Nava-

rra, S.A." sozietatearen kudeaketa-txostenak adierazten du 2000ko lehen hiruhilekoan obraren exekuzio-proiektua entregatu dela, eta horretarako eginiko estimazioaren arabera eraikinaren kostua 12.500etik 13.000 milioi pezetara bitartekoa dela.

Iruñean, 2000ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).